

PARTE-HARTZEKO ARAUAK

Elkarteentzako diru-laguntzak
2024

Biztanleriaren Zerbitzuen Zuzendaritza
Kultura, Ondarea eta Elkarte Bizitza Saila

AURKIBIDEA

SARRERA	3
1. Xedapen orokorrak	4
2. Diru-laguntza motak.....	4
3. Gutxieneko onarpen baldintzak	4
4. Elkarte kategoriak	5
5. Modalitateak.....	5
6. Irizpideak.....	5
7. Errepublikako engaiamendu kontratua.....	6
8. Elkartearen administrazio eta kontabilitate betebeharrak	6
9. Diru-laguntza beste erakunde bati transferitzea.....	7
10. Publikoari informazio emateko neurriak.....	7
11. Elkartearen aldaketa	7
12. Araudiaren betetzea	7
13. Araudiaren aldaketa.....	7
14. Eztabaidak.....	8

SARRERA

Lurralde Elkargoen Kode Orokorraren L1611-4 artikulua kontuan hartuta,

Errepublikaren lurralde administrazioari buruzko 1992ko otsailaren 6ko legearen 13. artikulua kontuan hartuta,

Prozedura publikoen gardentasunari eta ustelkeriaren prebentzioari buruzko 1993ko urtarrilaren 29ko legearen 81. artikulua eta 2001eko apirilaren 30eko 2001-379 aplikazio dekretua kontuan hartuta,

Herritarrek botere publikoekiko harremanetan dituzten eskubideei buruzko 2000ko apirilaren 12ko legearen 10. artikulua kontuan hartuta,

Definizioa: "Diru-laguntza publiko batek lurralde elkargoak erakunde publiko edo pribatu batek hasi eta burututako ekintza bati finantza-laguntza ematen dion egoera ezaugarritzen du; administrazioak onuragarritzat jotzen dituen helburu zehatzak lortu, babestu eta laguntzeko."

1. Xedapen orokorrak

ZIBURU-ko hiriak elkarteak laguntzeko konpromisoa hartu du, haien proiektuak aurrera eramaten lagunduz eta haien jarduerak modu ezberdinetan babestuz:

- Lokalak, altzariak, ekipamendua eta giza baliabideak eskainiz
- Finantza-laguntza emanez (diru-laguntzak).

Horrela, tokiko elkarteentzako laguntza aktiborako politika berresten du.

ZIBURU-ko hiriak diru-laguntzak jasotzen dituzten elkarteekiko kudeaketa garden baten alde egingen du.

Araudi hau ZIBURU-ko hiriak elkarreei ematen dizkien diru-laguntza guziei aplikatzen zaie.

Udal-laguntzak emateko baldintza orokorrak eta ordainketa moduak zehazten ditu, esleipen-deliberazioan esplizituki bestelakorik adierazten ez bada behintzat.

Diru-laguntza eskatzen duen edozein elkartek lurralde elkargoak ezarritako prozedura bete behar du.

Prozedura betetzeak eskaera bakoitzaren tratamendua eta udaleko hautatuen azterketa erraztuko du.

2. Diru-laguntza motak

Elkarte hautagaiek bi diru-laguntza eskaera mota aurkez ditzakete:

- Funtzionamendurako diru-laguntza

Diru-laguntza hau hiriak elkartearen eguneroko jarduerak laguntzeko ematen duen finantza-laguntza da. Zenbatekoa aldatu egin daiteke esleipen-irizpideen arabera.

Urtero eman daiteke.

- Proiekturako diru-laguntza

Diru-laguntza hau jarduera zehatz bat edo proiektu jakin bat gauzatzeko eska daiteke.

3. Gutxieneko onarpen baldintzak

Diru-laguntzen banaketa ez da nahitaezkoa udalarentzat. Udal kontseiluaren esku dago.

Hautagaia izateko, elkarteak honako hauek bete behar ditu:

- 1901eko legearen arabera irabazi-asmorik gabeko elkartea edo eskola kooperatiba izatea;
- Legea jarraituz Elkartearen Erregistro Nazionalean (RNA) erregistratuta eta deklaraturik egotea;
- Sorreraren agiriaren egunetik gutxienez urte beteko izatea eta aktibitatea edukitzea;
- ZIBURU-ko hirian bere egoitza soziala, jarduera nagusia edo benetako eragina izatea;
- Betebeharrekin egunean izatea;
- ZIBURU-ko hiriaren politika orokorrenekin bat datozen jarduerak izatea;

- Araudi honen xedapenen arabera diru-laguntza eskaera aurkeztu izana.

Kontuan izan beharrekoa: elkarte guziak ez dute diru-laguntzak jasotzeko eskubidea. Helburu politiko edo erlijiosoak dituzten elkarteak (1905eko abenduaren 9ko Elizak eta Estatua bereizteko legea erreferentziatzen hartuta) eta ordena publikoan nahasmenduak eragin dituztenek ezin izanen dute tokiko agintaritzaren diru-laguntzarik jaso.

4. Elkarte kategoriak

ZIBURU-ko udalak 10 elkarte kategoria bereizten ditu:

1. Kirol elkarteak (dantza barne)
2. Kultur elkarteak
3. Euskara sustatzen duten elkarteak
4. Hezkuntza elkarteak
5. Ingurumenaren alde lan egiten duten elkarteak
6. Gerlari ohien elkarteak
7. Ekonomia sozial eta solidarioan lan egiten duten elkarteak
8. Diskriminazioaren aurkako elkarteak
9. Hiriko animazioa sustatzen duten elkarteak
10. Besteak

5. Modalitateak

Diru-laguntza bat lortzeko, elkarteak eskaera bat aurkeztu behar du ZIBURU-ko Udalak emandako inprimaki berezia erabiliz; herriko etxean edo udal webgunean eskuragarri.

Inprimaki hau, beharrezko dokumentuekin batera (ikus diru-laguntza txostena), urtarrilaren 15a baino lehen aurkeztu behar da, aurtengo urterako diru-laguntzak jasotzeko kontuan hartzeko.

Kontuan izan beharrekoa: epea igaro ondoren jasotako txostenak edo osatu gabe daudenak ez dira kontutan hartuko.

ZIBURU-ko diru-laguntzen azterketa eta esleipen prozesua honako hau da:

- Aurtengo urterako eskaera beteak urtarrilaren 15a baino lehen aurkeztu behar dira;
- Txostenaren administrazio-egiaztapena;
- Txostenen aurkezpenei batzordeari;
- Udal kontseiluaren diru-laguntzen bozketa;
- Diru-laguntza emanez gero, diru-laguntzaren hartzaileari gutun bat bidaltzen zaio (esleitutako zenbatekoa zehaztuz);
- Eskaera ukatuz gero, elkarteari gutun bat bidaltzen zaio.
- Ordainketa Altxor Publikotik onuradun den elkartearen kontura transferentzia bidez egingen da.

6. Irizpideak

Diru-laguntzaren zenbatekoa hautatutako batzorde batek zehaztuko du, informazio ukigarri eta kuantifikagarrietan, eta analisi-irizpideetan oinarrituz.

Diru-laguntza eskaera guzietarako, honako datuak hartuko dira aintzat:

- Eskatutako zenbatekoa
- Elkartearen urteko emaitzak
- Tokiko interes publikoa
- Elkartearen irismena
- Elkartearen komunitatearekiko bitartekaritza-jarduerak
- Elkartearen desgaitasuna duten pertsonen inklusioa sustatzeko jarduerak
- Elkartearen gizarte-inklusioa sustatzen duten jarduerak
- Elkartearen euskararen erabilera sustatzen edo bultzatzen duten jarduerak
- Elkartearen garapen jasagarriaren ikuspegia duten jarduerak
- Elkartearen hiriko-bizitzan parte hartzea
- Kideen kopurua, Ziburutarrak barne, eta haien adin-taldeak
- Lokalen, altzarien, ekipamenduen eta/edo giza baliabideen eskaintza, noizbehinkakoa edo errepikatzen dena.

7. Errepublikako engaiamendu kontratua

2021eko abuztuaren 24ko legeak, Errepublikaren printzipioekiko errespetua indartuz, elkarte eta fundazioek Errepublikaren Konpromiso Kontratu bat sinatzeko betebeharra ezarri zuen diru-laguntzak jasotzeko eta interes publikoko estatusa lortzeko.

2021eko abenduaren 31ko 2021-1947 dekretua, diru-laguntza publikoak edo estatuaren adostasuna jasotzen duten elkarte eta fundazioentzako Errepublikaren Konpromiso Kontratua onartzen duena, 2022ko urtarrilaren 1ean sartu zen indarrean.

Errepublikaren Konpromiso Kontratuak zazpi konpromiso batzen ditu. Haien helburua, alde batetik, askatasunaren, berdintasunaren eta anaitasunaren printzipioak, eta giza duintasuna eta Errepublikaren sinboloak errespetatzea da, eta, bestetik, Errepublikaren izaera laikoa adieraztea eta ordena publikoa hausten duen edozein ekintza saihestea.

Kontratu honetan jasotako printzipioak ez betetzeak diru-laguntza itzuli behar izatea justifika dezake.

8. Elkartearen administrazio eta kontabilitate betebeharrak

Diru-laguntza jaso duen elkarte bat, diru-laguntza hori eman duen elkargoaren ordezkarien kontrolaren menpe egon daiteke. Kontrol hauen xedea, adierazitako helburuarekin lotuta, diru-laguntzaren erabilera egokia ebaluatzea da.

Elkargo publiko bati diru-laguntza eskatzen dion edozein elkartek, udal ordezkarietara elkarteko banku-kontuen laburpena aurkeztu behar die.

9. Diru-laguntza beste erakunde bati transferitzea

Ezinezkoa da, elkarteari diru-laguntza jatorriz eman zion elkargoak horretarako baimena eman ezean. 2009ko maiatzaren 12ko legea sinplifikatzen duen 2009-526 legea onartu zenetik, L 1611-4 artikulua espresuki dio "debekatuta dago diru-laguntza bat jaso duen edozein talde edo elkarte, erakunde edo enpresak diru-laguntza osoa edo zati bat beste elkarte batzuei ematea, elkargoaren eta diru-laguntza jaso duen elkartearen artean egindako akordioan espresuki xedatzen ez bada".

10. Publikoari informazio emateko neurriak

Udal diru-laguntzak jasotzen dituzten elkarteek, eskuragarri duten bide guztiak erabiliz, jasotako udalaren finantza-laguntza nabarmendu behar dute.

Elkarteak Urteko Batzar Nagusira gonbidatuko du udala eta legezko jakinarazpen-epearen barnean ohartaraziko du.

11. Elkartearen aldaketa

Elkarteak hilabeteko epean jakinaraziko dio udalari bere administrazioan edo zuzendaritzan izandako edozein aldaketa, eta bere estatutu eguneratuak aurkeztuko dizkio udalari.

12. Araudiaren betetzea

Araudi hauen klausulak guziz edo partzialki ez betetzeak honako ondorioak ekar ditzake:

- Elkargoak emandako laguntza ekonomikoa etetea;
- Esleitutako kopuruaren itzulera osoa edo partziala eskatzea (banan-banako edo gertakari bateko diru-laguntzaren kasuan);
- Elkarteak aurrerago aurkeztutako diru-laguntza eskaerak kontutan ez hartzea.

13. Araudiaren aldaketa

Udal kontseiluak araudi hauen baldintzak edozein unetan alda ditzake deliberazio bidez.

14. Eztabaidak

Eztabaidaren bat izanez gero, elkarteak eta udalak konponbide adiskidetsu bat bilatzea adosten dute.

Konponbide adiskidetsurik lortzen ez bada, berariaz xedatzen da Paue-ko Administrazio Auzitegiak izango duela araudi hauen aplikaziotik sortzen diren eztabaida guzien aginpide bakarra.

Helegite prozedurei buruzko informazioa Auzitegiaren Eskribautzan aurkitu daiteke.